



Datorren astelehenetik aurrera mobilizazio ugari egiteko deia egin du Lurraldeak / 6



Ekitaldi ofizialik gabe ospatu zen atzo SESBen iraultzaren 74. urteurrena / 17



Remen: «Hiru urtez jokatu barik egotea ezin gogorragoa izan da guretzat» / 21

EUSKALDUNON

Egunkaria

Ostirala, 1991ko azaroak 8 / II. urtea / 287. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

PILOTA

Eugi-Galarza igandean

Igandean eguerdiko 12etan jokatuko da Galarza eta Eugiren arteko lau t'erdiko finalerdia, ETBk zuzenean eskainita. Iruñeko Udalak Labrit pilotalekua hartua zuen gaur arratserako, afaria egiteko, eta alkatetean ez du hori aldatzerik onartu. / 22

Greba egin zuten atzo Acenorreko langile guztiek

Acenorek dituen bost lan-tegietako langile guztiek egin zuten atzo lau orduko greba. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek egin zuten deialdia Sidenorek Acenorentzako prestatu duen Bideragarritasun Plangintzaren aurka protesta egiteko. Langileek manifestazioak egin zituzten EAEko hiru hiriburuetan, Laudion eta Hernanin. Er-tzaintzak eraso egin zien langileei Laudion. / 12

NATOk Europako estatuen osotasuna defendatuko du

NATOk estatuen osotasuna eta subiranotasuna defendatuko ditu bere estrategia berriarekin. NATOk estatu eta gobernuburuak bilduta daude Erroman erakunde militarrek hurrengo urteetan izan behar duen jokabidea eta estrategia diseinatzen. Europa oraindik foki segurua ez dela erabaki dute NATOk partaideek. Nazionalismoen berpizkundea jo dute desoreka faktore nagusitzat. / 16

Jugoslaviarako Bake Konferentzia buka daiteke gaur

Gaur beteko da Europako Komunitateak Kroaziako gerran parte hartzen duten aldeei ezarritako ultimatum suetena lortzeko. Baina ultimatum horrek ez du eraginik izan gerrako frontean, atzo borroka areagotu egin zirelako. Beraz, EKren erabakia zigorak ezartzea izango da, eta Lord Carringtonek proposatu bezala, Bake Konferentzia bertan behera uztea. / 17


Bi urteko umea hil dute Erandion aitaren kotxean jarritako bonbaz

Goardia zibila eta bere bi seme kotxean zihoazen lehergailuak eztanda egin zuenean

Fabio Moreno Asla bi urteko umea hil zen atzo arratsaldean Erandion bere aita goardia zibilaren kotxean zegoen lehergailuak eztanda egin zuenean. Leherketa arratsaldeko bostak ondoan gertatu zen Erandioko Jose Luis Goioaga kalean Antonio Moreno Chica eta bere bi seme bikiak eskolatik etxera zihoazela. Goardia zibila eta beste semeak zauri arinak izan zituzten eztandaren ondorioz, eta Gurutzetako ospitalera eramane zituzten.

Bizkaiko Gobernu Zibilak emandako informazioaren arabera, bi kilo lehergailuz osatuta egon zitekeen kotxeko eserleku azpian zegoen bomba. Kotxea hamabost bat metrora bota zuen eta su hartu zuen ondoren.

Atentatua gogor gaitzetsi zuten EAJ, PSE-PSOE, EA, eta PP alderdiek. EAJko EBBk bere «dolumina» adierazi zuen. ETA kritikatu zuen «bere iraultza ume errugabeak hilez egiten ari delako». Ramon Jauregi PSEko idazkari nagusiak «HBren botoek horrelako basakeriak babes-teko» balio dutela salatu zuen. HB «minduta» agertu zen Fabio Moreno umearen heriotzagatik. / 4



Leherketa arratsaldeko bostak ondoan gertatu zen Erandioko Goioaga kalean.

JOSE SIMAL


Buesak hezkuntz erreforma egiteko konpromezua besterik ez du hartu

Fernando Buesa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu sozialistak legealdi honetan hezkuntz erreforma egingo dela, ziurtatu zuen bakarrik, atzo Legebiltzarrean egindako bere saileko egitasmoen aurkezpenean. EAJ eta PSE-PSOEek ez dute oraindik hezkuntz akordioarik. Ondorioz, arlo horretako gainontzeko arazo guztientzako konpromezurik ez duela hartuko nabarmendu zuen kontseilariak.

Ikastolen finantzaketa, euskalduntze prozesuaren urratsak, legeak egiteko epeak, hizkuntz perfilak, ordainketa delegatua, eta langileen homologazioa, besteak beste, argitzeke utzi zituen Buesak.

Oposizio alderdiek gogor kritikatu zuten «asmoak» baino ez zituelako aurkeztu eta hezkuntz programa berriak PSE-PSOEn oniritzia baino ez zuen aurkitu Legebiltzarrean. Inazio Oliverik, Buesaren aurretik Hezkuntza sailburu izandakoak, «zehaztu ez daitekeena zehazten saiatzeagatik» eskerrak eman zituzten Buesari. Baina programa bat aurkeztea beharrezkoa dela adierazi zion.

Atzo greban ziren ikastetxe pribatu-tako langileek kontzentrazioa egin zuten Legebiltzarrean aurrean. Fernando Buesak topo egin zuen haiekin sarreran eta protesta egin zioten. / 8



Fernando Buesa.

EEE

BESTERIK

G I Z A R T E A

Legebiltzarrak Langraizko gartzela bisitatuko du preso atzerritarren egoerari buruz jakiteko / 10

N A Z I O A R T E A

Autonomia prestatzeko batzordeak osatu dituzte jada lurralde okupatu-tako palestinarrek / 18

K I R O L A

Cabestanyk Gatorade taldearekin korrituko du datorren urtean / 21